Antzerki obra bortitza “bai hitza eta bai ekintzaren aldetik”

Iñigo Ibarra markinarra, Ander Lipus bezala ezagunagoa, antzezkizun berriarekin igoko da nora eta Luhusoko (Lapurdi) eszenatokira. Azaroaren 1ean izango da estreinaldia eta Miren Tirapu eta Iñaki Ziarrusta aktoreak izango ditu alboan Lipusek. Hirurak obra ezohiko baten protagonistak izango dira 65 minutuz: ‘Publikoari gorroto’

AINHOA LORES

Iñaki Ziarrusta, Ander Lipus eta Miren Tirapu dira antzerki-lan honen protagonistak. AINHOA RESANO

BORTIZKERIA hitza errepikatu du behin baino gehiagotan Ander Lipusek bere antzezlan berria zertan datzan galdetu diogunean. “ Oso obra sinplea da”, aurreratu du. Agertokian aktore bat bere publikoaren zain dago baina ez da inor agertzen. Azkenengo momentuan bikote bat azaltzen da eta horrela obrari hasiera ematen dio, baina aktoreak bat-batean *txipa aldatu* eta bi ikusleak eskenatokira igoarazi eta bertan tortura-tzen ditu.

Aktore markinarrak aspaldi irakurri zuen Xabier Mendiguren Elizegik 1985ean idatzitako *Publikoari gorroto* antzerki liburua eta “pentsatu nuen jendeak irakurri bai baina obra ez zuela antzeztuta ikusi, nahiko bortitza eta gogorra zelako. Bere ustez, lan honetan bortizkeriaren inguruan irakurketa bat dago; “bat-batean nola gizakiarengan paralisi edo blokeo bat sortu daitekeen”. Teatroaren inguruko gogoeta eta kritika bat da Publikoari gorroto.

Irakurriak izateko diren antzerki obra gehienekin gertatzen den bezalaxe, Mendigurenek idatzitako *Publikoari gorroto* ere moldatu behar izan du Lipusen taldeak taularatu ahal izateko. “Gaurkotu dugu, liburua idatzi zen garaian adibidez internet ez zegoen”. Sareari ere, hain zuzen, kritika egiten diote. “Nire ustez, leundu egin dugu pixka bat, gehiago *teatralizatuz*”, testuan azaltzen zen bortizkeria “gehiegizkoa” zen eta. Publiko gisa ari ziren bi pertsonaiak txotxongilo bilakatzen ziren obra idatzian, horregatik moldaketa txiki bat egitea erabaki zuen Lipusek. Aktoreak, antzezkizunaren lehenengo zatian pertsonaia desberdinen rola hartuko du, hainbat euskalki erabiliz. “Testua gureganatu egin dugu azken finean”, argitu du. Xabier Mendigurenen oniritziarekin moldatu dute obra, aldaketa txiki horien lana idazlearekin berarekin partekatuz.

Hala ere, nahiz eta hasierako obra bere muturreko bortizkeriagatik moldatu behar izan duten, biolentzia puntu hori agerian dago. “Mutilari batez ere kristoren ostiak ematen dizkio aktoreak makil batekin, belarrian hozka egiten dio eta pistola bat ere agertzen da. Elementu horiek nahiko *inpaktanteak* dira”. Fisikoki gogorrak diren momentuak direla dio markinarrak, baina baita psikologikoki ere –“bortitza bai hitza eta bai ekintzaren aldetik”–, azpimarratu du.

Xabier Mendigurenen testu batean oinarrituta dago. A. RESANO

HUTS TEATROA *Publikoari gorroto* datorren azaroaren 1ean taularatuko da aurrenekoz, Lapurdiko Luhuso herrian. Estreinaldia beraz, baina ez obrarena soilik, antzezkizun honekin Ander Lipusek hasiera emango baitio etapa berri bati, Huts teatroarenari, alegia. Antzerkiola imaginarioaren ibilbidea bukatutzat eman zuten dagoeneko. Lehengo konpainiarekin “euskaraz eta erdaraz lan egiten nuen”, orain aldiz, “nolabait esateko, geografikoki kokatu dut antzerki taldea”, Euskal Herrian. Euskaraz soilik aritzea nahi du aktore markinarrak, “euskaraz sortzeko eta euskaraz antzerkia plazaratzeko ideiarekin”.

Bestalde, hainbat idazlerekin lan egin nahi du Lipusek, “aurreko taldearekin egiten nuen antzerkia sinbolikoagoa zen eta oraingoa errealistagoa, beste kutsu bat izango du, desberdina”. Hala ere, bere “zigilu” pertsonal hori agertuko dela uste du. “Hurbiltzen den publikoa ez *dezepzionatzea* espero dut”. *Publikoari gorroto* Euskal Herri osotik zabaldu nahi dute. “Azaroan eta abenduan momentuz, bira nahiko potoloa daukagu. Jendeari obra apurtzaile eta berri bat eskaintzeko irrikan gaude”.